

ERAGINGARRITASUNA ERABILTZEKO IRIZPIDEEN TAULA OROKORRA

PROZEDURA*-FAMILIA	PROZEDURA MOTA		ARAU- ERREGULATZAILEA	HABILITAZIOA	INPRIMAKIA	IRAUNGITZEA
Laguntzak, bekak, diru-laguntzak eta prestazioak (zerga-hobariak eta bonifikazioak, zergak, tasak eta prezio publikoak ere barne)	Aldizkakoa**	Nominatibak eta zuzenekoak	Aurrekontu banakatuak	Ez-Aurkakotzea - TGSS ordain betebeharrak - Zerga betebeharrak FFAA - Besteak	Hitzarmen mota eta/edo inprimakia	4 urte, Kontratu txikiak ezik
		Arruntak	Prozeduraren arau espezifikoa***		Eskaera-orria	
		Ez-aldizkakoa				
	GLL (AES)		4/2011 dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa	Eusko Jaurlaritzako eskaera orria		
Kontratazio Publikoa	Kontratu txikiak		9/2017 Legea, Azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa	Ez-Aurkakotzea - TGSS ordain betebeharrak - Zerga betebeharrak FFAA Adostasuna - IAE (FFAA) edo beste zergazko batzuk	Eskaintza eskaera	
	Besteak				Plegu orokorrak edo partikularrak	
Zehatzailea, ikuskatzailea edo ofizioz hasitakoa (zergen likidazioak, enbargoak, diru- bilketa, ibilgailuak bide publikotik kentzea).			Prozeduraren arau espezifikoa***	Legez	Ez da aplikatzen	
Giza baliabideak (Enplegu publikoa)			Prozeduraren arau espezifikoa***	Ez-Aurkakotzea	Eskaera-orria	
Bestelakoak (Baimenak, lizentziak eta homologazioak, erregistroak eta erroldak -zergarik gabekoak-, adopzioak, etab.)			Prozeduraren arau espezifikoa***	Ez-Aurkakotzea Adostasuna Zergazkoak	Eskaera-orria	

OIN-OHARRAK

*Prozedura: Barne hartzen ditu TRAMITE edota ZERBITZUAK.

**Aldizkakoa: Aldi baterako deialdi zehatza duen prozedura bat da, amaiera-data duena.

*** Prozeduraren arau espezifikoa (udal-ordenantza, BFaren foru-araua, Eusko Jaurlaritzaren agindua...). Arau horiek prozedura horretarako kontsultatu behar diren datuak aipatu behar dituzte, eta, beraz, eskatutako elkarreragingarritasun-zerbitzuak.

GARRANTZITSUA

· PROZEDURAREN KODEA: gutxienez 3 karaktere eta gehienez 20. Kode batek prozedura bakarra du (prozedura berak urte desberdinetan ezin du kode desberdina izan)

· PROZEDURAREN IZENAK: Ezin dira jaso zerbitzuaren izena, prozedura-kodea, lagatzailearen izena, ezta deialdiaren urtea ere.

· ARAU ERREGULATZAILEA: Arau Orokorrek baino, berariazko arauak, espezifikoak, gomendatzen zaizkie.

· HIRUGARRENEN DATUAK KONTSULTATZEKO PROZEDURAK: Bizikidetza-unitate bateko kideak izanez gero, horien guztien sinadura sartu beharko da eskabidean, edo, bestela, eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen bat, gainerako kideei informazioa eman diela eta haien baimena duela adierazteko. (Adib. Adierazten dut nire bizikidetza-unitateko kideei jakinarazi diedala haien zerga-datuak kontsultatuko direla, eta baimena lortu dut).

GAI OROKORRAK

• Araudietatik eta formularioetatik, paperean zein formatu elektronikoan, herritarrei interoperabilitate-zerbitzuen bidez lortzen diren ziurtagiriak edo dokumentuak aurkezteko edozein eskakizun ezabatzea. Era berean, saihestu egin behar da paperean aurkezteari buruzko aipamen oro, hala nola, "aurkeztu beharreko dokumentazioa", "erantsi beharreko dokumentazioa", "... ren kopia" eta abar, aipatzen diren datuak elkarreragingarriak direnean.

• Gaikuntza Ez aurkakotza denean, herritarrei informazioa eman beharko zaie, formularioaren bidez, beharrezko datuak kontsultatzeari buruz, bai eta aurka egiteko eskubidea erabil dezaketen tokiari buruz ere (hori ez da interpretatu behar DBEOren 21. artikuluan eta DBLOren 12. eta 18. artikuluetan aitortutako eskubide gisa).

Datuetara sartzeko baimena behar bada (adostasuna), berariaz jaso beharko da.

• "Nortasun-datuak egiaztatzeko" zerbitzua, lagatzaileak ez-aurkakotzearen bitartez eskatzen du; beraz, jada ez dute "legez" onartuko.

• Ez dira baliozkoak araudiaren eta/edo aurrekontuen zirriborroak. Eskaerari buruzko araudia eta aurrekontuak argitaratuta egon beharko dira.

• Kontsumorik egin gabeko gehieneko epea 12 hilabetekoa izango da (etete-abisua jasoko da) eta beste 6 hilabetekoa iraungitzeko.

• Irizpide horiek dagokion webgunean argitaratuko dira, eta akordioaren arabera eguneratuko dira.